

## 04/03 IRIZPENA

Lontxo Oihartzabal jn.  
Juan Carlos Arraibi jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Otxoa jn.  
Pilar Ramírez and.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Eva Blanco and  
Idazkari teknikoa.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko ekainaren 3ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria) hezkuntzako hizkuntz eskakizunaren kategoriarekin sortzen duen eta irakasle ez diren lan itunpeko hezkuntzako langileen lanpostuen hizkuntz eskakizunak zehazteko irizpideak ezartzen dituen dekretu proiektuari buruz.

### **SARRERA:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria) hezkuntzako hizkuntz eskakizunaren kategoriarekin sortzen duen eta irakasle ez diren lan itunpeko langileen lanpostuen hizkuntz eskakizunak zehazteko irizpideak ezartzen dituen dekretu proiektua, ahalik eta azkarren eman dezan kasuan kasuko aginduzko txostena.

Era berean, Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariaren idazkia eta Saileko aholkularitza juridikoak eginiko txostena ere bidali dira.

### **I.- AURREKARIAK:**

Euskara Erabili eta Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak dio EAEko ikasle guztiek euskaraz zein gaztelaniaz ikasteko eskubidea dutela hezkuntzako maila guztietan.

Printzipio hau Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 18. artikuluan ere jaso da, eta helburua da ikasleek «bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko benetako ulermen eta adierazmena izan» dezatela.

Ikasleek euskaraz zein gaztelaniaz ikasteko duten eskubidea babestu ahal izateko, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuak irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak zehazteko irizpideak finkatu zituen. Bestalde, urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezkoaren On-

doko Hezkuntzako zentroetako araudi espezifikoa ezarri zen. Azkenik, abenduaren 11ko 343/2001 Dekretuak Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuek izan beharreko hizkuntz eskakizunak esleitzeko araubide espezifikoa ezartzen du.

Nolanahi ere, hezkuntza sistemako lanpostu batzuk ez dira behar bezala arautzen, ez 47/1993 Dekretuan, ez eta gainerako arauzko xedapenetan. Ildo horretatik, Hezkuntza Bereziko irakasle ez diren lan itunpeko langileen lanpostuek hizkuntz eskakizun bat behar dute, langilearen hizkuntz gaitasuna ziurtatu ahal izateko. HBLEM ziurtagiriak bete zuen hutsune hori aldi batez (1996ko azaroaren 14ko Agindua), kontuan izan behar baita HE1-k ez duela ziurtatzen langileak hizkuntz gaitasun nahikorik duenik lanpostua euskaraz aktiboki betetzeko. Dena dela, HBLEM ziurtagiriak ez du lerrun nahikorik hizkuntz eskakizuntzat jo ahal izateko.

Dekretu proiektu honen helburua da HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria) sortzea hutsune hori bete dadin eta agiriari Hezkuntzako Hizkuntz Eskakizunaren kategoria ematea, lehenago aipatu lanpostuen izaera eta ezaugarriekin bat etorritz.

## **II.- EDUKIA**

Dekretu proiektu honek 7 artikulua, xedapen iragankor bakarra, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi ditu.

1. artikulua dio dekretuaren helburua dela HLEA (Hezkuntzako langileen Euskara Agiria) hizkuntz eskakizuna sortzea.

2. artikulua dio hizkuntz eskakizun hau (HLEA) HE1en eta HE2ren tarteko maila bat dela. HLEA egiaztatzen duenaren ahozko gaitasuna jatorrizko irakasleei dagokiena edo antzekoa izango da eta testuak idazteko oinarrizko trebetasunak dituela frogatu beharko du.

3. artikuluan adierazi da zein lanposturi zuzentzen zaion hizkuntz eskakizun hau. Hain zuzen ere, Hezkuntza Bereziko irakasle ez diren lan itunpeko langileen lanpostuei eta irakasle ez diren baina izaera hezitzailea duten lan itunpeko langileen beste kategoria batzuei, baldin eta, lanpostuaren ezaugarriak kontuan izanik, antzeko hizkuntz eskakizuna behar badute etorkizunean.

4. artikulua dio Hezkuntza Bereziko irakasle ez diren lan itunpeko langileen lanpostuen hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data dagokion lanpostu zerrendaren arabera ezarriko direla, hots, euskarazko irakaskuntza eskainiko duten lanpostuek (B eta D ereduak dagozkienak) HLEA indarrean izango dute. A ereduari dagozkienek ostera, hau da, gaztelaniazko irakaskuntza eskainiko duten lanpostuek HE1 izango dute esleiturik eta berauen derrigortasun data gutxienez hiru urtekoa izango da dekretu hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

5. artikulua dio Hezkuntza Administrazioak finkatuko dituela hizkuntz eskakizun hau egiaztatze behar diren euskara frogen forma eta edukia, eta IRALE programaren bidez ezarriko direla HLEA lortzeko moduak.

6. artikulua HLEA egiaztatze derrigortasun-araudi orokorraren salbuespenak jasotzen ditu eta 7. artikulua salbuespen hauek egiaztatze prozedura ezarri du.

Xedapen iragankor bakarrak dio antzinako HBLEM ziurtagiria dutenek egiaztaturik izango dutela HLEA hizkuntz eskakizun berria eta HLEAtik gorako euskara ziurtagiria dutenek, hala nola, Hezkuntzako HE2 ez dute HLEA egiaztatu beharrik hizkuntz eskakizun hau eskatzen den lanpostuetan.

Xedapen indargabetzaileak dekretu honetan ezarritakoaren kontrako xedapen guztiak indarririk gabe utzi ditu.

Azken xedapenatarik lehenak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskumena ematen dio dekretua garatzeko behar diren xedapenak emateko eta bigarrenak, al-diz, dekretua indarrean jartzeko data zehaztu du.

### **III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

2002ko urtarrilean Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek ezagutzera eman zuen hezkuntza eremuan HBLEM hizkuntz eskakizuna sortzeko dekretu proiektua. Dekretu proiektu hori erretiratu egin da, Berrikuntzako zuzendariaren txostenak dioenez, *“definizio teknikoko zailtasunak eta lehendik zeuden egiaztagiria sare edo egituraren txertatzeko eragozpenak”* egon direlako.

2002ko otsailean Batzorde Iraunkorrek dekretu proiektu baten berri eman zuen, *0tik 3 urtera bitartekoentzako hezitzaileen eta Hezkuntza Bereziko lan itunpeko langileen lanpostuen hizkuntz eskakizunak ezartzeko irizpideak zehazteko dekretu proiektua* alegia. Dekretu honi aldaketa batzuk egin zitzaizkion eta maiatzaren 21eko 110/2002 Dekretu moduan argitaratu zen (EHAA, 2002/06/4), baina Hezkuntza Bereziko lan itunpeko langileen lanpostuetara soilik mugatzen da. Nolanahi ere, 785/2003. epaiak zuzenbidearen aurkakotzat jotzen ditu 2 eta 5. artikulua eta xedapen iragankorra, 47/1993 Dekretuak ezarritako hizkuntz eskakizuna eskatzen dietelako Hezkuntza Bereziko lan itunpeko langileei.

Dekretu proiektu berri honen helburua da hizkuntz eskakizun espezifiko bat sortzea kolektibo honentzat. Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek positibotzat jotzen du hizkuntz eskakizun berri hau sortzea, zeren uste baitu beharrezkoa dela irakasle ez diren baina izaera hezitzailea duten langile hauen eginkizunei egokitzeko.

Uste dugu irakaskuntzaz kanpoko hezkuntza figura ugari dagoela, urteen puruz eta irakaskuntzako kalitatea hobetu ahala aberastuz joan direnak; hala ere, premiazkoa da araudi bat prestatzea lehendik dauden edota pixkanaka sortu diren figura hauek definitu eta identifikatzeko, beren funtzioak zehazteko, euren eta hezkuntza munduaren arteko koordinazio eta lotura finkatzeko eta hizkuntz eskakizunak eta lanpostuari espreski dagozkion bestelako eskakizunak ezartzeko.

Nolanahi ere, komenigarri deritzogu dekretu proiektu honi buruzko ohar batzuk egitea:

- ✓ **1. artikulua:** artikulua honek dekretuaren xedea ezartzen du baina ez du tituluan jasotako helburua aipatzen, hau da, irakasle ez diren lan itunpeko langileen lanpostuen hizkuntz eskakizunak zehazteko irizpideak finkatzea. Bestalde, artikulua honen erredakzioa nahasgarria da puntu honetan: hizkuntz eskakizun hau *“martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan ezarritako 1 eta 2 hizkuntz eskakizunei gehitu zaie”*. Beste hizkuntz eskakizunei buruzko aipamen hori kendu beharko litzatekeela uste dugu.

Era berean, hobe litzateke dekretu honek hizkuntz eskakizun berri hau soilik arautuko balu eta, hortaz, irakasle ez diren lan itunpeko langileen lanpostuen hizkuntz eskakizunen irizpideak beste araudi batean arautuko lirateke, beste kasu batzuetan egin den bezalaxe (Ikuskaritza, laguntza zerbitzuak, eta abar).

- ✓ **2. artikulua:** hizkuntz eskakizun honen gaitasunak irakaspostuetako 1 eta 2 hizkuntz eskakizunak oinarritzat hartuz definitu dira. Izan ere, 47/1993 Dekretuak 1 eta 2 hizkuntz eskakizunek bermatu beharreko gaitasunak jaso ditu 4 eta 5. artikuluetan. Hala ere, komeniko litzateke hizkuntz eskakizun hau bereizirik definitzea, eskakizuna daukanak zein hizkuntz gaitasun egiaztatu behar duen zehaztuz, eta ez irakaspostuek eskatzen dutena imitatuz.
- ✓ **3. artikulua:** artikulua honen b) atala kentzea proposatzen dugu, zeren ez baitakigu zehazki zertan datzan *“irakasle ez diren baina izaera hezitzailea duten lan itunpeko langileen beste kategoria batzuk”* erreferentzia.
- ✓ **4. artikulua:** artikulua honek HLEA hizkuntz eskakizun berria eta HE1 esleitzeko irizpideak finkatzen ditu, jakinik HE1 irakaskuntzaren eremuko delatzen eta, hain zuzen ere, gaztelaniazko irakaspostuei (A ereduak) dagokien araudian arautzen dela. Beraz, 1. artikuluan esan bezalaxe, berriro diogu hobe litzatekeela hizkuntz eskakizunak esleitzeko irizpideak araudi berezi baten jasoko balira.

Bestalde, zioen azalpenean esan bezala, hizkuntz eskakizun berri hau sortzeko arrazoia da irakaspostuetako hizkuntz eskakizunak ez direla egokiak plaza hauetarako, bada, orduan, ez du inolako zentzurik HE1-i eustea; eta ezinezko bada langile guztiak hizkuntz eskakizun berriari egokitzea eta kontuan harturik A ereduak ere hor daudela, hobe litzateke graduazio edo mailaketa bat ezartzea, hau da,

HLEA1 eta HLEA2 sortzea, halako moldez non maila bat edo bestea aplikatuko bailitzaioke lanpostu bakoitzari, eginkizunen eta hizkuntz ereduaren arabera.

Azkenik, ez dirudi batere zuhurra denik euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten plaza guztiei (B eta D eredukoak) HLEA indarrean esleitzea. Uste dugu derrigortasun data dagokion lanpostu zerrendetan ezarri behar dela eta denbora-tarte bat eman behar dela derrigortasun datak esleitzeko, beti ere kontuan izanik lanpostuko eginkizunak eta ikastetxeko irakasteredu elebidunak.

- ✓ **6. artikulua:** artikulua honek salbuespenak jaso ditu, baina ez du aipatzen planifikazio etaparen hasieran 45 urte baino gehiago dituztenak salbuetsirik egongo direnik, beti ere interesatuaren adostasuna izanik. Zirkunstantzia edo gorabehera hau 47/1993 Dekretuan jaso da, baita ere 86/97 Dekretuko 42. artikuluan (Funtzio Publikoaren Legeko 97.3 artikulua garatzen duena), beraz, badirudi diskriminazioa dela dekretu horrek arautzen duen kolektiboari aukera hau kentzea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko ekainaren 8an  
IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz. : Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.